



SEGURBIDE



Ezkerraldeko segurtasun-egoerak gero eta kezka handiagoa sortzen du biztanlerian. Azken urteetan izandako bortxaketek, lapurketek eta baita hilketek ere egoera are larriagoa bihurtu dute. Arazo horiek guztiek eragin zuzena dute gure egunerokoan, eta beldurra eta mesfidantza sortzen dituzte, adibidez, kalean bakarrik ibiltzean. Horregatik, SegurBide aplikazioa sortzea ideia egokia iruditzen zaigu: aplikazioaren helburua da erabiltzaileak etxerako bidean pertsona fidagarri batekin edo talde batekin komunikatuta sentitzea, segurtasuna handitzeko.

Aplikazioaren bidez (programazioaren eta geokokapenaren bitartez), erabiltzaileak norbaitekin harremanetan jarri ahalko du bere ibilbidean zehar, edo bestela, beste pertsona batzuekin talde seguru bat osatu eta haiekin batera leku batetik bestera mugitzeko. Gainera, aplikazioak izango dituen ezarpen eta balorazio-sistemen bidez, beste erabiltzaile batzuen fidagarritasun-maila kontsultatu ahalko da.

Merkatu ikerketa egin ondoren; Barakaldo Beldur Ezek arrisku-egoeren aurrean jarduten du, Polizia ohartarazteko aukera emanez eta izuaren botoiaren bidez berehalako erantzuna emanez; eraso sexistetan zentratzen da, 14 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta puntualki erabiltzen da, gizarte-interakziorik gabe. Aldiz, SegurBide prebentziozko ikuspegia hartzen du: adin guztietako pertsonen ohiko joan-etorrietan lagunduz eta talde seguruak sortuz, pertsona fidagarriekin kontaktua izatea eta erabiltzaileen interakzio eta balorazioaren bidez, horrela segurtasun konstanteagoa eta hurbilagoa eskainiz.

Balio-faktoreei dagokienez, aplikazioa doakoa izango da. Hala ere, nahi duenak harpidetza bat erosi dezake, zeinek aukera gehiago eta funtzio eksklusiboak eskuratzea ahalbidetuko duen. Kalitateari dagokionez, garapen maila ertaina erabiliko genuke: aplikazioak modu eraginkorrean eta segurtasunez funtzionatzeko nahikoa litzatekeena. Gainera, erabiltzeko oso erraza izango da, eta hala ere, behar duenari laguntza edo azalpenak emateko prest egongo gara.

Azkenik, proiektu hau ezkerrean segurtasunik eza sentitzen duen edozein pertsonari dago zuzenduta, adin guztietakoei eta gizarte hainbat talderi, besteak beste, LGTBQ+ komunitateari edo emakumei.

BEURKO BHI BATXILERGOA 1.D - Olatz Castro, Andere Gallego, Unai Lopategi, Sandra Fernández, Leire Arranz.

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

ZEIN DA ZUEN BEZERO NAGUSIA?

Ezkerraldean, mugikorraren kokapena duten jendearentzat, baita seguru sentitzen ez diren biztanleentzat ere.

Segurtasun pertsonala bermatzeko baliabide azkar eta fidagarria behar duten pertsonak.

Adibidez:

- Indarkeria matxista jasateko arriskuan dauden edo biktima diren emakumeak.
- LGTBI+ kolektiboko pertsonak, homofobia edo jazarpena pairatzen dutenak.
- Arrazismoa edo diskriminazio arraziala jasaten duten pertsonak.
- Gauetan bakarrik mugitzen diren gazteak, segurtasun handiagoa behar dutenak.
- Egoera ahulean dauden adineko pertsonak.

ZEIN EZAUGARRI KOMUNAK DITUZTE?

- Egoera arriskutsuetan erantzun azkarra behar dute.
- Aplikazioarekiko konfiantza eta diskrezioa baloratzen dituzte.
- Babes-sentsazioa emango dien tresna baten beharra dute.
- Espazio publikoetan edo etxean ustekabeko arriskuak izan ditzakete.
- Mugikorretik erabiltzeko erraza izatea ezinbestekoa da.

NOLA SEGMENTATU MERKATUA BEHARREN ARABERA?

Bezero potentzialak talde hauetan bana daitezke:

1. Segmentua: Indarkeria matxistaren aurkako segurtasuna

- Bai emakume gazteak bai helduak
- Beharrak: alerta azkarra, geolokalizazio segurua, laguntza-sarearekin konexioa.

2. Segmentua: LGTBI+ pertsonen segurtasuna

- Homofobia edo jazarpena pairatzen duten pertsonak.
- Beharrak: espazio seguruak, alertak, ibilbide seguruak.

3. Segmentua: Arrazakeriaren aurkako segurtasuna

- Pertsona arrazializatuak edo migratzaileak.
- Beharrak: laguntza-zerbitzuetara sarbide azkarra, gertakarien erregistro segurua.

4. Segmentua: Segurtasun komunitarioa oro har

- Ezkerraldeako edozein herritar.
- Beharrak: zona arriskutsuen oharrak, laguntza edo abisu komunitarioak

BEURKO BHI BATXILERGOA 1.D - Olatz Castro, Andere Gallego, Unai Lopategi, Sandra Fernández, Leire Arranz.

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

EZKERRALDEKO PUNTU MOREA

Feministek laguntza eskaini ahal digute duten esperientziagatik; adibidez Barakaldoko Jaietan egindako lanagatik, haien “postutan” etxeraino laguntzeko aukera ematen zutelako.

SEGURTASUN ADITUEN EUSKAL ELKARTEA

<https://www.sae-avps.eus/la-asociacion/>

Zer da? Segurtasunaren arloko profesional, teknikari eta espezialisten elkarte da, sektorean eskarmentu handia eta ospe handia duena. Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) duten enpresa eta erakundeetan garatzen dute beren jarduera, eta segurtasun fisikoaren, prebentzioaren edo larrialdien arloan (publikoa zein pribatua) dituzten erakundeetako zuzendaritza-karguetan eta erantzukizuneko karguetan egiten dute lan.

Zertarako? Elkarateak segurtasun arloko esperientzia ematen du, eta horrek laguntzen du aplikazioak arriskuak hobeto antzematen eta erabiltzailea etxeraino segurtasunez laguntzeko funtzio eraginkorrak diseinatzeko.

BASQUE SEGURTASUN FOROA

<https://basquesegurtasunforoa.euskadi.eus/hasiera/>

Zer da? Segurtasun integrala funtsezko kontzeptua da gizarte egonkor eta erresiliente bat eraikitzeko. Baina, horrez gainera, ez da solik mehatxuei aurre egitea, baizik eta prebentziozko ikuspegi bat hartzea arriskuei aurrea hartzeko eta horien eragina minimizatzen. Euskadik ikuspegi horren garrantzia ulertu du, eta eremu horietan babesareagotzeko estrategia berritzaileak ezartzea erabaki du.

Zertarako? Elkarateak lagundu diezaguke segurtasunari buruzko ezagutza aditua eta datu fidagarriak emanez, funtzio erabilgarriak diseinatzeko, eta, horrez gain, aplikazioa probatzeko eta hobetzeko erakunde eta erabiltzaile errealekin harremanetan jartzea erraztu dezake.

BABES ZIBILA EUSKADI

<https://www.euskadi.eus/entidades-participacion-social-emergencias/web01-a2bolun/es/?utm>

Zer da? Herritarren segurtasuna eta larrialdiei aurre egiteko sortutako boluntario-sare bat da. Helburua, larrialdi egoeretan laguntza ematea da, ekitaldi handietan segurtasuna bermatzea eta lehen sorospena eskaintzea. Elkarate hau udalek eta erkidegoek koordinatzen dute, eta boluntarioek gizarteari laguntza eskaintzen diote egoera kritikoetan.

Zertarako? Protokoloak eta laguntza sareak eskaintzen dizkigu, taldeak modu seguruan antolatzen eta arrisku egoeretan elkarri laguntzeko.

UDALA

Ezkerraldeko udal bakoitzari diru-laguntza eskatuko diogu, azken finean ezkerraldeko segurtasuna hobetzeko aplikazio bat sortzen ari garelako.

UDALTZAINGOA

Aplikazioak larrialdi-botoia du. Sakatutakoan, poliziarekin harremanetan jartzen da: 112ra dei automatikoa egiten du, edo alerta-mezua bidaltzen du, kokapenarekin (erabiltzaileak baimena eman badu).

BAZKIDEAK	ESKAINITAKO LAGUNTZA	BALIO-PROPOSAMENA NOLA INDARTU
Ezkerraldeko Puntu Morea	Feministek laguntza pertsonala eskaintzea. Erabiltzaileak etxeraino seguru laguntzea.	Erabiltzaileek bakarrik ez joateko aukera seguru bat dute.
Segurtasun Adituen Euskal Elkarte (SAE)	Segurtasunaren arloko adituen ezagutza eta aholkuak.	Aplikazioaren funtzio eraginkorrak diseinatzeko, arriskuak aurreikusi eta erabiltzaileen segurtasuna hobetzeko.
Basque Segurtasun Foroa	Ezagutza aditua eta datuak segurtasuna hobetzeko.	Ikuspegi prebentiboak eta benetako probak errazten ditu erabiltzaileekin.
Babes Zibila Euskadi	Protokoloak, boluntariora-sarea eta larrialdietako laguntza.	Erantzun antolatua eta tokiko laguntza-sareak ematen ditu.
Ezkerraldeko udalak	Diru-laguntzak eskatzea	Ezkerraldeko herrien segurtasuna bermatzea.
Udaltzaingoa	Larrialdiei berehala erantzutea, larrialdietarako botoiaren bidez	112 telefonoarekin harremanetan jartzean edo erabiltzailearen kokalekuarekin alerta bat bidaltzean azkar erantzuteko aukera ematen du.

BEURKO BHI BATXILERGOA 1.D - Olatz Castro, Andere Gallego, Unai Lopategi, Sandra Fernández, Leire Arranz.

4. IRABAZI ITURRIAK

NONDIK ATERAKO DUGU DIRUA? LANA, MAILEGUAK...

Dirua aterako dugu enpresa sortzeko; orduan, defentsa pertsonaleko formazio batzuk egingo ditugu, jendea etor dadin eta beldurra edo arriskua sentitzen dutenean nola jokatu erakusteko. Formazio horiei esker dirua bilduko dugu eta horrekin gure enpresa sortuko dugu. Urte hasieratik amaierara arte iraungo du, eta astelehenetik ostiralera 4 ordu inguru izango dira egun bakoitzeko. Horrez gainera, ezker aldeko udaletxei diru laguntzak eskatuko genizkioke.

BABESLEAK

MARKA/PLATAFORMA	ZER DAKIGU HEDAPENARI BURUZ?
Temu	Europar duela gutxi publizitate-gastua gehien handitu duten ecommerce plataformetako bat da.
Shein	Temuren antzekoa: irismen handia online modan, bereziki gazteen artean; inbertsio handia publizitate digitalean.
Amazon (eta bere estrategia retail-media)	Amazon nagusi da gaur egun "retail media" aren esparru globalean: publizitatean gehien inbertitzen duen aktoreetako bat da, marka/produktuei ikusgarritasuna emanez, eta horrek erakusten du online publizitatearen aldeko apustua egiten duela.
Zalando	Europako modako marketplazetik handienetako bat da, eta marketinean eta publizitatean egiten dituen inbertsioak asko hazten dira (baita kanpainetarako IA erabilita ere).
About you	Zalandok erosi berri duen arren, aktore garrantzitsua izaten jarraitzen du Europar ecommerce-n; marketin digitalarekin, influencer-ekin eta kolaborazioekin lan egiten du.

ZER DIRU SARRERAK IZANGO DITUGU / NOLA ORDAINDUKO DIGUTE?

Ordaindu dugu patrozinioen bidez, jendeak aplikazioa eukitzeagatik ez ordaindu behar izateko. Horrela patrozinatzen ditugun enpresak edo produktuak guri dirua ematen digute eta jendea ez digu dirua ordaindu behar.

LABURBILUZ:

IRABAZI ITURRIAK	NOLA SORTZEN DA?	HELBURUA
Defentsa pertsonaleko formakuntza	Ikastaroak astelehenetik ostiralera, 4 ordu/ egunean	Partaidetzatik dirua lortu, aplikazioa martxan jartzeko inbertsioa finantzatzeko
Diru-laguntzak	Udaletxeetatik eskatu	Hasierako inbertsioa/garapena laguntzeko
Babesleak/patrozinatzaileak	Enpresek aplikazioa babesten dute, erabiltzaileek erabiltzeko doan	Diru-sarrerak sortu, erabiltzaileak ez dute dirua ordaindu behar; marken ikusgarritasuna handitu

BEURKO BHI BATXILERGOA 1.D - Olatz Castro, Andere Gallego, Unai Lopategi, Sandra Fernández, Leire Arranz.

5. KANALAK

KOMUNIKAZIO-KANALAK:

Erabiliko ditugun komunikazio-bide nagusiak:

- **Sare sozialak** (Instagram, TikTok, X): Eduki dinamikoak sortuko ditugu (bideo laburrak, demoak, gomendioak eta testigantzak), gazte segmentura modu organiko eta eraginkorrean iristeko.
- **Publizitate digitala:** Segmentuka birbidaltzeko aukera emango digute, aplikazioa ezagutzen ez duten erabiltzaileengana heltzeko, sare sozialetan edo Google kanpainetan.
- **Komunitate lokaleko kanpainak:** Kartel digitalak, herriko ekitaldietan presentzia, eta ikastetxe edo elkarteekin lankidetzak puntualak.

5 FASEAK:

Instagram, Tiktok...: bideo laburrak, egoera errealean adibideak, segurtasun mezuak jarriko ditugu. **Honen helburua:** Bezeroek jakitea laguntza eskatu dezaketela leku batetik bestera mugitzeko. (📺 Bideo proba.MOV)

1. Pertzepzioa:

Erabiltzaileek SegurBide ezagutuko dute sare sozialen bidez (Instagram, TikTok, Facebook), bideo laburren eta egoera errealean adibideen bidez. Gainera, kartel fisikoak, ahoz-ahoko gomendioak eta udal-komunitateen laguntza (udalak eta komunitateak eskaintzen duten babes-sarea osatuz, kalean seguru senti daitezen pertsonak elkarri laguntzeko informazioa), baliabideak edo alertak emanez.

2. Ebaluazioa:

Ebaluazioa errazteko kanalak eta ekintzak:

- **Webgunea:** zerbitzuaren azalpena, nola funtzionatzen duen eta segurtasun-protokoloak.
- **Demo bideoak:** aplikazioa nola erabili den adibide praktikoak.
- **Galdera ohikoen atala (FAQ):** segurtasuna, pribatutasuna, erabilera-prozesua... aplikazioan edo webguneko menuan.

Helburua: erabiltzaileak konfiantza hartzea eta aplikazioa bere beharrak konpontzen dituela sentitzea.

3. Erosketa:

Aplikazioa doan deskargatu ahal izango da Android eta iOS plataformetan. Erabiltzaileak erregistratu eta bere profila sortuko du, zerbitzua berehala erabiltzen hasteko.

4. Entrega:

Zerbitzua berehala aktibatuko da erregistroa egin bezain pronto. Funtzio guztiak erabilgarri egongo dira: alerta botoia, talde-sorkuntza eta kokapen partekatzea.

5. Salmenta ondorengoa:

- App barruko balorazio-sistema (1–5 izar).
- Iruzkinek eta iradokizun kutxa aplikazioan.
- Arreta-bezeroa:



- Segurtasun-eguneraketak: aplikazioaren bertsio hobetuak.

BANAKETA-KANALAK:

Gure produktua aplikazio digitala denez, banaketa-kanalak plataforma ofizial digitalen bidez egingo dira.

- Google Play Store
- Apple App Store

SALMENTA-KANALAK:

Salmenta-kanal nagusiak:

- Google Play Store
- Apple App Store

BEURKO BHI BATXILERGOA 1.D - Olatz Castro, Andere Gallego, Unai Lopategi, Sandra Fernández, Leire Arranz.

6. BEZEROEKI KO HARREMANAK

1. **Laguntza pertsonala:** Erabiltzaileek orientazio zuzen eta pertsonala jasoko dute: telefono-deiak, aurrez aurrekoak....
2. **Zerbitzu automatizatuak:** Erabiltzaileak laguntza eska dezake eta aplikazioa automatizatutako mezu edo jakinarazpen bidez orientatuko da.
3. **Autozerbitzua:** Erabiltzaileek beren taldeak sor ditzakete, laguntza eskaera propioak kudeatu eta adiskideen edo komunitateko kideekin elkarreragin dezakete.
4. **Komunitateak:** Foro digitalak, app barruko chat guneak eta besteenganako erreseinak erabiliko dira esperientziak partekatzeko eta elkarri laguntzeko.

Horrez gain, harpidetzak egiteko aukera izango dute (29,99 euro / urtero), harpidetza horrekin, bezeroek bidaiak aurrez antolatu ahal izango dituzte eta laguntza gehigarria izango dute.



BEURKO BHI BATXILERGOA 1.D - Olatz Castro, Andere Gallego, Unai Lopategi, Sandra Fernández, Leire Arranz.

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

BALIABIDE FISIKOAK

- Probetarako eta garapenarako gailuak (ordenagailuak, Smartphonak), zerbitzariak eta hodeien bilterigatzea aplikazioa operatiboa mantetzeko balioko du.

BALIABIDE INTELEKTUALAK

- Aplikazioaren iturburu-kodea eta geolokalizazio-algoritmoak.
- Apparen funtzionaltasun berritzaileen gaineko patenteak edo eskubideak.
- Marka eta marketineko materiala.

GIZA BALIABIDEAK

- Aplikazioen garatzaileen eta diseinatzaileen taldea.
- Zibersegurtasunean eta datuen babesean adituak, adibidez ertzaina.
- Bezeroari laguntzeko eta larrialdiei erantzuteko langileak.

FINANTZA-BALIABIDEAK

- Aplikazioa garatzeko eta abiarazteko hasierako kapitala.
- Zerbitzariak mantentzeko, eguneratzeko eta publizitatea egiteko funtsak...

BEURKO BHI BATXILERGOA 1.D - Olatz Castro, Andere Gallego, Unai Lopategi, Sandra Fernández, Leire Arranz.

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Aplikazioa sortu ahal izateko tekniko/informatiko talde batekin harremanetan jarriko gara, aurrekontu bat adostu, eta gure laguntzarekin sortzeaz arduratuko gara, aplikazioaren sormena jarraituz eta guk nahi ditugun ezaugarriak proposatuz. Behin aplikazioa bukatuta, hilerio soldata bat ordainduko diegu, aplikazioarekin arazoren bat izatekotan, harremanetan erraz jartzeko; aurrekontu hori ez da oso altua izango, baina arazoak egotekotan eta diru gehiago jarri beharrekotan, prezio bat adosteko prest egongo gara.

BEURKO BHI BATXILERGOA 1.D - Olatz Castro, Andere Gallego, Unai Lopategi, Sandra Fernández, Leire Arranz.

9. KOSTUEN EGITURA

GIZARTE SEGURANTZA:

Soldatez gain, enpresak langileen Gizarte Segurantzaren egin beharreko ekarpenak ere kostu finkotzat hartzen dira.

Ekarpen horiek soldatarekiko ehuneko bat izaten dira, baina modu sinplifikatuan jarriko dugu:

Gizarte Segurantzako enpresaren ekarpena:

Langile bakoitzeko %30 ingurukoa izaten da.

Adibide sinplea jartzeko (kalkulu orokorra, soldatak zertxobait gorabehera):

Guztira Gizarte Segurantzaren (3 langile): 1.110 € / hilabete inguruko.

PAPELETAK:

Alde batetik 150-200 papeleta inguru egingo genituzke nahikoa delako institutoetatik, fakultateetatik, auzo txikietatik... banatzeko. Papeleteen kostua gutxi gora behera 10-25 € ingurukoa izango lirake. Beste alde batetik kartelak ere egingo genituzke, 50 kartel gutxi gorabehera eta ikastetxeetako sarreretan, pasabideetan, tabernetan, denda lokaletan, eremu komunaletan eta hainbat lekutan jarriko genituzke.

Gastu totala: 60-80€ izango litzateke.

PATENTEAK:

Egile-eskubideek kodea, interfaze grafikoa, logotipoa eta aplikazioaren eduki sortzailea babesten dute, baina ez dute ideia bera babesten.

Kostuak:

- **Espainia:** 13–20 € inguruan, ofizialki erregistratuz gero
- **AEB (EEUU):** gutxi gorabehera 45–65 USD
- Gainera, lana denbora-zigilua (timestamp) erabiliz gordetzeak ere balio du babes gisa, nahiz eta indar legal txikiagoa izan.

APLIKAZIOA SORTZEAK:

Aplikazioaren garapena erdimailakoa izango denez hurrengo funtzioak izango ditu: zuzeneko GPSa, larrialdietarako kontatuak, backend, notifikazioak eta diseinu pro-a, baina

guzti horrek bere gastua dakar, gutxi beherako 30.000€koa. 30.000€ hoietatik, 15.000€ mugikorraren garapenerako izango litzateke, Backendarako 6000€ , diseinua egiteko 4000€, QA 3000€ eta gestiorako 2000€. Beste aldetik, hilean zerbitzuengatik (AWS, Google Cloud) 50-200€ ordaindu beharko genituzke eta 20-300€ mapa eta geolokalizazioagatik (Google Maps API). Urtero berriz, App Storren aplikazioa izateagatik 99€ izango litzateke, Google Play-en ez bezala, behin 25€ ordaintzearekin balio duela. Azkenik, marketingaren aldetik, publizitatea eta sare sozialak kontrolatzeak 500-3000€ izango lirateke, pribazitatea eta datuen babesa 300-1500€ eta mantenimenduaren prezioa, zoritxarrez, 20-30% igoko litzateke hasierako kostuarekin aldentuz.

SOLDATA

(SOLDATEN AURREKONTUA)

Teknikari espezializatuak:

- **Software garatzailea:** 1.200 € / hilabetero
- **Marketin-eko arduraduna:** 3.000 € - 5.000 € / hilabetero
- **Administrazio laguntzailea:** 800 € / hilabetero

Guztira: 3.000 € / hilabetero

Soldatak izango dira gure kostu finko (KF) nagusienetako bat; hileror berdin mantenduko ohi direlako.

NORK KONPONDUKO DU ARAZOAK IZATEKOTAN (TEKNIKARIAK):

Segurbide aplikazioa gure teknikari espezializatuek kudeatuko eta konponduko dute, sistemaren funtzionamendu egokia, segurtasuna eta eguneraketak bermatuz.

- **Software teknikariak:** aplikazioaren akatsak konpondu eta eguneraketak egiten dituzte.
- **Segurtasun adituak:** datuen babesa eta erabiltzaileen pribatutasuna ziurtatzen dute.
- **Sare-teknikariak:** aplikazioaren konexioak eta zerbitzariak ondo funtzionatzen dutela ziurtatzen dute.

KOSTU FINKOAK:

1. Aplikazioaren garapena:

GPS zuzeneko sistema, backend, notifikazioak, interfaze grafikoa, QA, gestioa.

- Kostua: 30.000€ (mugikorraren garapena 15.000€, backend 6.000€, 2. diseinua 4.000€, QA 3.000€, kudeaketa 2.000€).

2. Patente eta egile-eskubideak:

Kodea, interfaze grafikoa, logotipoa eta edukia babesteko.

- Kostua: Espainia: 20€, (gutxi gorabehera).

3. Marketin hasierako kanpainak:

Kartelak, triptikoak, publizitatea sare sozialetan.

- Kostua: 600–3.000€.

4. App Store eta Google Play kontuak:

- Kostua: 99€ (App Store) + 25€ (Google Play)

KOSTU ALDAKORRAK

Marketingen arabera hilabete batzuetan kartel gehiago jarriko ditugu beste batzuetan baino. Adibidez udan diskoteketako atetan jarriko ahal ditugu jendea ikusteko eta segurtasunez bueltatzeko etxera, aldiz otsailan, matxoan ez dago ia festarik ez ezer orduan ez ditugu hainbeste kartel jarriko. Urtean zehar beharren arabera jarriko ditugu.

BEURKO BHI BATXILERGOA 1.D - Olatz Castro, Andere Gallego, Unai Lopategi, Sandra Fernández, Leire Arranz.